## 2011-10-27ko UDALBATZA EZOHIZKOA

Iruran, bi mila eta hamaikagarren urteko urriaren hogeita zazpian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ezohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-BILDU udal taldekoak: Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Josu Yurrita Loitegui eta Ainara Mugica Iruretagoyena.

-EAJ/PNV udal taldeakoa: Javier Izaguirre Gomez

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: Gorka Murua Makuso, eta Tomas Etxeberria Sarasola.

Udaleko administrariak, Mª Jesús Olano Zubeldia andreak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

### LEHENBIZIKO GAIA

**ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN LUZAPENA, HALA BADAGOKIO.-**

2009-07-17ko 196 Alkatetza Dekretu bidez Ilarki enpresa etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateko enpresa esleipenduna izan zen; hori horrela, 2009ko irailaren 1ean hasi zen zerbitzua ematen, Irurako Udalarekin lankidetzan, udalbatzak 2008-12-16an onartutako baldintzen plegua betez.

**PRORROGA, SI PROCEDE, DEL SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA.-**

Con fecha 1 de septiembre de 2009 empezó la prestación del servicio de ayuda domiciliaria por la empresa Ilarki con este Ayuntamiento de Irura, previa adjudicación realizada por Decre4to de Alcaldía nº 196 de fecha 17-07-2009 y de acuerdo con el Pliego de Condiciones aprobado por la Corporación con fecha 16-12-2008.

Baldintzen pleguaren arabera, zerbitzuak 2 urteko iraupena izango du, eta urtero luzatu ahal izango da, bi urteko iraupenarekin, gehienez ere.Edonola ere, luzapenak ezingo ditu kontratuaren baldintzak aldatu.

De acuerdo con el Pliego de Condiciones la prestación tendrá una duración de 2 años, y podrá prorrogarse por periodos anuales hasta un máximo total de otros dos años. En todo caso la prórroga no podrá suponer modificación de las condiciones del contrato. Otro aspecto es la revisión de precios.

Hori horrela, eta dagozkion txostenak ikusita.

Ante ello y vistos los informes pertinentes.

Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordearen 2011-10-18ko irizpena ikusita.

Visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Servicios Sociales de fecha 18-10-2011.

Proposatu dute honako AKORDIO HAU:

Se propone la adopción del siguiente ACUERDO:

1.- Aipatu den kontratuaren 2 urteko luzapena onartzea, 2013ko irailera arte.

2.- Prezioen berrikusketa hauek onartzea:

a) 2010eko irailetik aurrera: ordu arruntaren prezioa: 18,24€

Jai-orduaren prezioa:

b)2011ko irailetik aurrera: ordu arruntaren prezioa: Jai-orduaren prezioa:

3.- Batzordearen neurri teknikoak onartzea eta akordio honi eranstea.

1º.- Aprobar la prórroga del contrato citado por otros 2 años, hasta septiembre de 2013.

2º.- Aprobar las siguientes revisiones de precios:

a) A partir de septiembre de 2010: Precio hora ordinaria: 18,24€

   Precio hora festiva: 22,06€

b) A partir de septiembre de 2011: Precio hora ordinaria: 18,70€

   Precio hora festiva: 22,62€

3º.- Aprobar y añadir a este acuerdo las medidas técnicas de la Comisión.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

Este acu®rdo es definitivo en vía administrativa.

Gai honetan Javier Izagirre Gomez zinegotzia bertaratzen da.

**BIGARREN GAIA**

**2 URTEKO HAURREN ESKOLARATZEKO IRURAKO IKASTOLAREKIN HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

2011ko urriaren 6ko sarrera data eta 1746 zenbakiarekin, Aitor Mendiluze Gonzalezek, Irurako Ikastolaren izenean, bi urteko gelarako diru-laguntza eskatu zuen.

Hori dela eta hitzarmen bat sinatuko da Irurako Ikastolarekin.

Hori ikusita udalbatzak aho batez onartzen du:

Lehena.- Aipatutako 2011/2012 ikasturterako hitzarmena ontzat ematea arauen arabera eta Ainhoa Ugalde Gorostiagari, Irurako udaleko alkate-lehendakari andreari, Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Bigarrena.- Diru kopurua jaso aurretik, Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Nortasunaren egiaztagiria

b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).

d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke

Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

## HIRUGARREN GAIA

**UDAL ZERGAK ETA TASEN ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO.**

Indarrean dagoen legediak jasotakoa betez, Tokiko Erakundeek nahikoa autonomia dute beren zergak ezartzeko eta erregulatzeko, indarrean dagoen legedia betez, eta, bereziki, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua betez.

Ikusita idazkari kontu-hartzailearen txostena.

Ikusita Lehendakaritza eta Ogasuneko Informazio Batzordearen aldeko txostena, 2011ko urriaren 21ekoa

Aipatu den Foru Arauaren 16. artikuluak jasotakoa betez, udalbatzako kideek aho batez erabaki dute honako hau:

1.- Aldaketa hauek behin-behinean onartzea, udal-zergak ezartzeko, kentzeko eta aldatzeko:

a) Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren

**MODIFICACIÓN, SI PROCEDE, DE LA ORDENANZA FISCAL DE TASAS E IMPUESTOS MUNICIPALES.**

De acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente, las Entidades Locales tienen autonomía para establecer y regular sus tributos de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente y en concreto en la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

Visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Presidencia y Hacienda de fecha 21 de octubre de 2011.

De acuerdo con lo dispuesto en el art. 16 de la Norma Foral citada la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes lo siguiente:

1.-Aprobar con carácter provisional las siguientes modificaciones en materia de establecimiento, supresión y modificaciones de los tributos municipales:

a).-Modificación de la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre

Ordenantzaren aldaketa::

| | |
|---|---|
| Edifizio berriak eraikitzea, bai etxebizitzak zein industriariak edo beste edozein erabilpenentarakoak eta da-udenak handitzeko obrak: | % 5 |
| Aurrekoaren berdina ez den edozein eratako obra, eraikuntza edo instalazioa: | % 3 |
| Babes Ofizialeko Etxebizi-tzak eta Etxebizitza Sozia-lak eraikitzeko Obrak: | %2 |
| Eraikitako Ondarearen Berregokipen Obrak: | %2. |
| 3.000€ko bai◎o aurrekontu txikiagoa duen eraikuntza, instalazio eta obrak; | %0 |
| Proiektu Teknikorik behar ez duten etxe-barruetako Obrak: | %0 |
| Etxebizitzadun edifizioen etxeaurr◎ak margotzea:◎ | %0 |

-Hobariak

a) %90eko hobaria, eraikuntza, instalazio edo borek pertsona ezinduen irigarritasun eta

Construcciones, Instalaciones y Obras.

| | |
|---|---|
| Construcción de nuevos edificios, sean residencias, industriales o con cualquier otro uso, in cluido las obras de ampliación de los existentes: | % 5 |
| Cualquier tipo de obra, construcción e instalación, distinta de la anterior: | % 3 |
| Obras de construcción de Viviendas de Protección Oficial y de Viviendas Sociales: | %2 |
| Obras de Rehabilitación del Patrimonio Edificado: | %2. |
| Obras, construcciones e instalaciones, cuyo presu-puesto sea inferior a 3.000€ | %0 |
| Obras en interior de vivienda, sin necesidad de proyecto técnico: | %0 |
| Pintado de Fachadas de Edificios de viviendas: | %0 |

-Bonificaciones.

a) Bonificación del 90% a las construcciones, instalaciones y obras que favorezcan las condiciones de

habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.

acceso y habitabilidad de los discapacitados.

b) %50eko hobaria, (igo-gailuak) etxebizitza-eraikinetako sarbidea eta bizigaitasuna hobetzeko eraikuntza, instalzio eta obretan.

b) Una bonificación del 50% de las construcciones, instalaciones y obras que favorezcan las condiciones de acceso de los edificios de viviendas (ascensores)

Hobaria, subjektu pasiboek eskatu beharko dute eta zergagai bakoitzeko hobari bakarra ezarriko da.

La bonificaci8ón la solicitaran los sujetos pasivos y se concederá una bonificación por impuesto.

2.-Zerbitzu publikoak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasaren Ordenantza Fiskalaren aldaketa

2.-.-Modificación de la Ordenanza Fiscal de la Tasa por Prestación de Servicios.

Honako tasak aldatzea, honela geldituko direlarik:

Modificar las siguientes tasas que quedarían de la siguiente forma.

2.1 .- Udal hilerriko kontzesio eta zerbitzuen tasa:

2.1.- Tasas por Concesión del Servicio de Cementerio:

| | |
|---|---|
| Nitxoen kontzesio 10 urterako:<br><br>Concesión de nichos para 10 ◎ños. | 250 €. |
| Ehorzketa nitxoan edo ateratzea<br><br>Inhumación-exhumación en nicho | 250 €. |
| Ehorzketa edo ateratzea panteoian<br><br>Inhumaci◎n en panteón | 360 €. |
| Jai egunetan<br><br>Festivos: | %50 |

2.2 Servicio por Expedición de documentos:

2.2.- Dokumentu luzatze zerbitzua:

| | |
|---|---|
| Fotokopiak, alde bakoitzeko: Fotocopias, por 1 cara: | 0,15 €. |
| Fotokopiak, bi aldeetatik: Fotocopias por las 2 caras: | 0,25 €. |
| A4 baino handiagoak Mayor que A4 | 0,25 €. |
| Faxaren erabilpena Servicio FAX | 2,00 € orri bakoitzeko (bidali eta jasotzeagatik)<br>2,00€ por hoja (enviada-recibida) |

**2. 3.-** Establezimenduak irekitzeko lizentziaren tasa

| | |
|---|---|
| 300 m2rainoko jarduerak | 600€ |
| 300◎ m2tik 500 m2rainokoak | 900€ |
| 501 m2tik 1000 m2rainokoak | 1.200€ |
| 1001 m2tik 1500 ◎2rainokoak | 3.000€ |
| 1501 m2tik 5000◎m◎rainokoak | 5.000€ |
| 5000◎◎2tik gorakoak | 7.500€ |

▪

2. 3 Servicio de concesión por apertura de establecimientos:

| | |
|---|---|
| Establecimientos de hasta 300 m2 | 600€ |
| De 300m2 hasta 500m2 | 900€ |
| De 501 m2 hasta 1000 m2 | 1.200€ |
| De 1001 m2 hasta 1500 m2 | 3.000€ |
| De 1501 m2 hasta 5000 m2 | 5.000€ |
| De mas de 5000m2 | 7.500€ |

2.4 Hirigintza-lizentziak eta beste espediente mota batzuk

2.4 Tasa por expedición de licencias urbanísticas y otro tipo de

bideratzeagatiko tasa:

-Lehen okupazio lizentzia:

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren bidez ordainarazitako kuotaren % 7,5.

-Hirigintza kontsultak:

expedientes:

-Licencias de 1ª ocupación:

El 7,5% de la cuota del impuesto de construcciones, instalaciones y obras.

-Consultas urbanísticas:

| | |
|---|---|
| Idatzizko edozein txosten teknikoa: Cualquier informe tecnico escrito: | 60€ |
| Lur-zatiketa (partzelazio zein segregazioak: Parcelación de terrenos (reparcelaciones y segregaciones) | 100€ |
| Ekimen pribatuaren bidez sustatutako udalaren iharduera:<br><br>Birpartzelaio proiektuak, Xehedapen azterlanak, plan partzialak, barne-erreformarako Plan Bereziak, urbanizazio proiektuak, jardunbide programak eta beste zenbait planeamenduko eta kudeatzeko figura eta bere aldaketak izapidatzeagatik: | 1.500 € |

2.5.- Etxez etxeko zerbitzuak:

2.5 Servicio de Ayuda a Domicilio

| | |
|---|---|
| Ordu arrunta<br><br>Hora normal | 18,70 €. |
| Jai eguneko ordua<br><br>Hora festiva | 22,62 € |

Dena den 2012ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean.

En todo caso estos acuerdos entrarán en vigor con fecha 1 de enero de 2012.

Los acuerdos adoptados, las

Hartutako akordioak eta bideratutako espedienteak jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foralak agindu bezala; horretarako iragarkiak argitaratuko dira bide ofizial honetan, Udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko egunkaririk zabalduenetako batean. Hori dena arau hauen barruan.

a) Non dauden agerian: Udal honetako Idazkaritzan.

b) Aztertzeko eta erreklamatzeko epea: 30 egun baliodun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egun baliodunetik hasita, bulegoko orduetan.

c) Non aurkeztu errekurtsoa: Osoko Bilkuran.

d) Erreklamazioa egin dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foraleko 17. artikuluan azaltzen direnak.

e) Non aurkeztu: Udaleko

ordenanzas modificadas y el expediente al efecto instruido se someten a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el artóculo 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en este medio oficial y en el tablón de edictos de la Casa Consistorial, todo ello conforme a las siguientes reglas:

a) Lugar donde se hallan de manifiesto: En la Secretaria de este Ayuntamiento.

b) Plazo para examinarlos y, en su caso, para formular las reclamaciones: 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en horario de oficina.

c) Órgano ante el que se recurre: .Ayuntamiento Pleno

d) Legitimados para reclamar: Los que relaciona el artículo 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

e) Lugar de presentación: En el Registro General de

Sarrera Erregistro Orokorrean. Administraziozko Prozeduraren Legeak bere 66. artikuluan esaten duen tokietan ere bai.

el Registro General de Entrada del Ayuntamiento. Así como en los sitios que relaciona la Ley de Procedimiento en su art. 66.

Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamaziorik edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik beharko.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrán por definitivos los acuerdos adoptados, sin necesidad de emitir nuevos acuerdos.

**LAUGARREN GAIA**

**UDAL UR ZERBITZUAREN KUDEAKETA LAGATZEKO GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI AKORDIOAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**CESION, SI PROCEDE, DE LA GESTIÓN DEL CICLO INTEGRAL DE AGUA AL CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA.**

Irurako Udala Gipuzkoako Ur Partzuergoaren barruan dago. Gaur egun, hark ematen du ur-hornidurarako zerbitzua, Ibiurko presatik Estatutuen 7.2 artikuluak honela dio: "Partzuergoak horrela erabakitzen badu, bere helburuak ur-zikloaren beste fase batzuetara hedatu ahal izango ditu, horrela nahi duten Udalekin hitzarmenak sinatu eta gero."

Este Ayuntamiento de Irura está integrado en el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa. En la actualidad el servicio de abastecimiento de agua en alta se presta por el mismo desde la presa de Ibiur. De acuerdo con sus Estatutos, art. 7.2, "Cuando así lo acuerde, el Consorcio podrá extender sus fines a otras fases del ciclo del agua, de acuerdo con los Ayuntamientos que lo interesen y previo Convenio con los mismos."

Era berean, Udalak Partzuergoarekin hitzarmena sinatu

Así mismo este Ayuntamiento está interesado en conveniar con el

nahi du, Irurako ur-zikloaren kudeaketa osoa egiteko.

Concorcio la gestión integral del ciclo del agua de Irura.

Ikusita idazkariaren/kontu-hartzailearen txostena.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

Ikusita Ogasun eta Lehendakaritza Batzordeak 2011ko urriaren 21eko bileran igorritako aldeko txostena.

Visto el dictamente favorable de la Comisión de Hacienda y Presidencia en sesión celebrada el día 21 de octubre de 2011.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez honakoa erabakitzen du:

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes lo siguiente:

-2012ko urtarrilaren 1etik aurrera uraren ziklo integrala Gipuzkoako Uren Partzuergoarekin batera kudeatzea, Udalak parte hartzen du Gipuzkoako Urak S.A.ren bitartez.

-Gestionar de forma consorci-ada a partir del 1 de enero de 2012 el ciclo integral del agua junto con el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa en el que este Ayuntamiento es participe a través de Aguas de Gipuzkoa – Gipuzkoako Urak S.A.

-Uraren Ziklo Integraleko Zerbitzuaren ordenantza Arautzailea onartzea eta Gipuzkoako Uren Partzuergoari egoki ikusten duenean eguneratzeko edo aldatzeko baimena eman.

-Aprobar la Ordenanza Reguladora del Servicio del Ciclo Integral del Agua y autorizar al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa su actualización o modificación cuando lo estime conveniente.

-Gipuzkoako Uren Partzuergoak zehaztutako tasak onartzea 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeko, eta Partzuergoari tasak eguneratzeko baimena eman.

-Aprobar las tasas establecidas por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa para su aplicación a partir del 1 de enero de 2012 y autorizar al Consorcio la actualización de las mismas, sin modificar su estructura.

-Kudeaketan elkar laguntzeko hitzarmen testua onartzea, eta horri jarraituz Gipuzkoako Uren

-Aprobar el texto de convenio de colaboración a suscribir para la gestión y en su virtud delegar en el

Partzuergoari utzi ziklo integralaren zerga eta prezioen likidazioa, bilketa eta kudeaketa.

Consorcio de Aguas de Gipuzkoa la gestión, liquidación y recaudación de las tasas y precios del ciclo integral.

-Irurako Alkate-lehendakariari zerbitzuaren kudeaketarako Gipuzkoako Uren Partzuergoarekin sinatuko den hitzarmena formalizatzeko ahalmena eman.

-Facultar a la Alcalde – presidente del Ayuntamiento de Irura para la formalización del convenio a suscribir con el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa para la gestión del servicio.

-Hartutako erabakiak jendaurrean zabaldu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez eta Iragarki taularen bidez 30 laneguneko epean interesatuek nahi dituzten alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

-Someter a información pública los acuerdos adoptados durante un plazo de 30 días hábiles mediante su publicaión en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y Tablón de Anuncios para la formulación de alegaciones y sugerencias por parte de los interesados.

-Jendaurrean zabaltzeko epean alegaziorik egongo ez balitz, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira.

-Entender elevados a definitivos los acuerdos adoptados si durante dicho plazo de exposición pública no se formulasen alegaciones.

## BOSGARREN GAIA

**ITSASOKO(GIPUZKOA9 AZPIESTAZIOA ETA CASTEJÓN-MURUARTEKO (NAFARROA) LINEA LOTZEKO 400-KV-KO LINEA ELEKTRIKOARI BURUZ MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Honako mozioa aurkezten da:

“2011ko abuztuan, Espainiako Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioaren mendeko Ingurumen Kalitate eta Ebaluazioko zuzendari nagusiaren komunikazio bat jaso zuten azterketaren eremuan dauden udalek, ondorengo gaiaren inguruan: “20110173LIE proiektuaren, Deikaztelu izeneko 400/220 Kv-ko azpiestazioa eta harekin lotutako 400 kV-ko

lineak (Iruñea) izenekoaren, ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren gaineko kontsultaren erantzuna.

Jasotako dokumentazioak erreferentzia egiten dio Red Eléctrica de España, SAk 400 kV-ko linea bat eraikitzeko proiektuari. Horren helburua Itsasoko (Gipuzkoa) azpiestazioa DEeikazgelun (Nafrroa) eraikiko den 400/220 kV-koarekin lotzea da eta Deikaztelukoa Castejón-Muruarteko L/400 kV-koarekin. Aztertzen ari diren lotura berriak egiteko, 400 kV-ko bi linea ezarri beharko lirateke. Guztira, 120 km-ko luzera izango dute, eta, horrez gain, 6 ha-ko azpiestazio elektriko bat eraikiko litzateke.

Proiektu honek Gasteiz/Castejón-Muruarte linea ordezkatuko du. Izan ere, proiektu hori bertan behera geratu zen, 274. Estatuko Aldizkari Ofizialaren, 2010eko azaroaren 12koaren, arabera, ingurumenean zuen eraginarengatik eta herritarrak proiektuaren aurka agertu zirelako.

Lehen proiektua bertan behera gelditzea eta herritarrak aurka agertzea eragin zuten arrazoiak berberak dira orain, edo agian larriagoak.

Linea berriaren ezaugarriak aurrekoaren antzekoak dira: 42/46 metroko dorreak, 400/500 metroko tartean jarrita, eta 4 oineko hormigoizko oinarriak dituztenak, beren artean 5,90 eta 10,14 metro arteko tartea dagoela. Debekatuta dago linearen inguruan zuhaitzak landatzea eta eraikinak eta industria instalazioak altxatzea.

Ingurumen eta paisaiarekiko eragina ez da onargarria, hasierako dokumentuan proposatutako ibilbide guztiek babestutako espazioei eragiten baitiete gutxi asko, Natura 2000 Sareari barne. Labur esanda, lineak eragina izango luke hainbat legedik Europakoa, estatukoa, foru erkidegokoa edo autonomia erkidegokoa- babestutako berrogeita hamar bat eremutan. Zehatz-mehatz, aurreikusitako 19 zatietatik 17k babestutako espazio edo espezieei eragingo liekete, eta kontuan hartutako 69 alternatibetatik batek ere ez ditu betetzen gutxieneko baldintzak ingurumenaren ikuspegitik.

Gauza bera gertatzen da eremu elektromagnetikoek osasunean duten eraginarekin: linea egiteko aurreikusten den ezein alternatibak e ditu betetzen Europako Batasunak arretaren izenean aholkatzen dituen distantzien irizpideak. 19 zatietatik 14 herri batetik 500 m-ra baino gutxiagora daude; hain zuzen ere, Nafarroa eta Gipuzkoako 43 herriri eragiten die horrek. Egoera zatiz zati aztertzen badugu, hasierako dokumentuan aurreikusitako 69 alternatibak

kontuan hartuta, konturatzen gara ez dela posible ezein korridorerik aintzat hartzea. Izan ere, haietan guztietan herriak daude segurtasuneko distantziaren barruan.

Horrez gain, erantsi beharko genuke informazio gutxiegi dagoela lineak hainbat arlotan izango lituzkeen ondorioen inguruan, hala nola, ingurune sozioekonomikoan, turismoan eta aisialdiko eremuetan, ondarean edota lineak zeharkatzen dituen erkidegoen legedietan planteatzen den lurralde ereduarekiko bateragarritasunean.

Poiektu honek eragin negatiboa izango luke Nafarroako zein Gipuzkoako lurraldearen zati handi batean, hainbat arlotan izango lituzkeen ondorioengatik: paisaian, ingurumenean, herritarren osasunean, ekoizpen sarean edo lehen sektorean.

Hori dela eta, udal honek hauxe ERABAKI DU:

1.- Itsasoko (Gipuzkoa) azpiestazioa eta Castejón-Muruarteko (Nafarroa) linea lotzeko 400 kV-ko linea elektrikoa ezartzeko proiektuaren aurka agertzea, baita proiektuan aurreikusitako azpiestazio berriaren aurka ere.

2.- Red Eléctrica de España, SAren hasierako dokumentuan aurreikusitako korridore guztien aurka dagoela azaltzea, eta interes kolektiboaren ikuspegitik tentsio altuko linea horrek ez duela justifikazio nahikorik salatzea.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei, Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrari eta Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioari eskatzea proiektuaren aurka ager daitezela, ez baita onargarria paisaiaren eta ingurumenaren ikuspegitik, herritar guztientzako funtsezko eremuei eragiten die eta.

4.- Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioari, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari, Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari erabaki hau igortzea eta hedabideen bitartez zabaltzea."

Hori dela eta udalbatzak aho batez onartzea erabaki du.

## SEIGARREN GAIA

**2010 EKITALDIKO UDALEKO KONTU OROKORRA ONARTZEA ,HALA BADAGOKIO.-** Dokumentazioa gazteleraz bakarrik dagoela ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du aztertu gabe uztea.

## ZAZPIGARREN GAIA

**DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.**

Alkatearen 121.1 zka. dun 2011ko irailaren 13ko dekretuaren berri ematen da:

"Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri-lan eta Garraio sailburuaren 2011ko uztailaren 27ko aginduz, udalentzako eta tokiko erakunde txikientzako diru-laguntzak deitu dituzte, irisgarritasun-planak presta-tzeko eta eguneratzeko, eta baita hobekuntza-obrak egikaritzeko eta ekipamendua erosteko ere, herri-ingurunearen eta eraikinen irisgarrita-suna bermatze aldera.

Irurako Udalak hobekuntza-obrak burutu nahi ditu, eta komun egokituak jarri nahi ditu, ezgaituentzako, Irurako Udalaren trinketeko kirol eraikinean, 69.827,29 euroko aurrekontuarekin.

Hori dela eta,

ERABAKI DUT:

Lehena.- Irurako Udalak aipatu

Se dá cuenta del Decreto de Alcaldía nº 121.1 de fecha 13 de septiembre de 2011.

"Que por Orden de 27 de julio de 2011 del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco, se convocan subvenciones a los Ayuntamientos y Entidades Locales Menores, para la elaboración y actualización de p`lanes de accesibilidad y para la ejecución de obras de mejora y la adquisición de equipamiento para garantziar la accesibilidad en el entorno urbano y de las edificaciones.

Este Ayuntamiento de Irura quiere realizar obras mejora y realización de aseos adaptados para minusválidos en el edificio municipal deportivo del trinkete de Irura, con un presupuesto total de 69.827,29 euros.

Ante ello,

RESUELVO :

Primero.- Este Ayuntamiento

den obra egikaritzeko konpromisoa hartu du, dagokion proiektuaren arabera eta aginduan jasotako baldintzak batez; era berean, obraren kostua finantzatuko du, emandako diru-laguntzak finantzatzen ez duen zati berean

Bigarrena.- Udaleko osoko bilkura jakinaren gainean uztea, lehenengo bileran, erabakia berresteko, hala badagokio.”

Hori dela eta udalbatzak aho batez berrestea erabaki du.

de Irura se compromete a la ejecución de la obra citada, de acuerdo con el correspondiente proyecto y con las condiciones señaladas en la citada Orden y a financiar el coste de la obra en la parte de la misma no financiada por la subvención que se conceda.

Segundo.- Dar cuenta al Pleno de la Corporación en la primera sesión que se celebre para su ratificación, si ello procediese.”

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, ratificarla.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:45etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari gisa dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA IDAZKARIA